

KUOTAK ETA TARIFAK

1. Inskripzio-kuota:

Idiazabal JDBren Kontseilu Arautzaileko kide izateagatik egin beharreko ekarpena da. Urteroko kuota bat da, urteko lehen seihilekoan fakturatzen eta kobratzen dena, eta banan-banan kalkulatzeko da inskribatutako kide bakoitzak aurreko kanpainan izandako ekoizpenaren arabera. Inskripzio berrien kasuan, ezin direnez eskuratu datu horiek, lehenengo urtean (edo geratzen den zatian, segun eta alta noiz egin den) ekoizpen-aurreikuspenaren arabera kalkulatu da, eta urte amaieran benetako datuekin bat etortzeko doituko da. Ondorio horietarako, titularra aldatu den kasuak ez dira alta berritzat hartuko.

Zenbatekoa honela kalkulatu da:

INSKRIPZIOAREN KONTZEPTUA	KUOTAREN KALKULUA
Ganadutegien erregistroa	"ganadutegia inskribatzeko oinarria" bider aurreko kanpainan ekoiztutako litroen kopurua
Bilketa-zentroen erregistroa	"bilketa-zentroak inskribatzeko oinarria" bider aurreko kanpainan merkaturatutako litroen kopurua
Gaztandegien erregistroa	"gaztandegia inskribatzeko oinarria" bider aurreko kanpainan landutako litroen kopurua

Hiru kasuetan, Idiazabal gazta egiteko bideratu diren eta halakotzat aitortu diren litroen kalkulua hartuko da kontuan, alde batera utzirik azkenean produktua ziurtatu den ala ez.

Erregistro batean baino gehiagotan inskribatzen diren pertsona fisiko edo juridikoek inskripzio bakar bateagatik soilik egingo dute ekarpena; zehazki, zenbateko handienekoagatik.

Kontseilu Arautzailearen osoko bilkurak urtero finkatuko eta argitaratuko du "inskrizio-oinarrien" balioa, eta betiere aplikazio-urtearen apirilaren 1a baino lehen. Ez bada argitaratu, aurreko urteko balioak aplikatuko dira.

2. Ziurtaginerako tarifak:

Euren ekoizpena Idiazabal ziurtaginera lortzeko aitortzen duten gaztandegi inskribatuei soilik aplikatzen zaie (alde batera utzirik azkenean ziurtatu den ala ez).

Kontseilu Arautzaileak planifikatutako kontrol-jarduketa guztietarako eskubidea ematen du, baita ziurtaginaren jaulkitzeko (hala badagokio), kaseina-plaketarako eta produktuaren kontraetiketatutako ere (azken horietarako, produktua ziurtatzen bada soilik).

Zenbatekoa aitortutako ekoizpenaren arabera kalkulatu da (eraldatutako litroak).

$$\text{Ziurtaginaren zenbatekoa} = \text{hilean eraldatutako litroak} \times \text{"ziurtaginaren oinarria"}$$

Hilero fakturatzen da, elaboratu eta hiru hilabete ondoren gutxienez. Adibidez: urtarilean landutako litroak (otsailaren 15a baino lehen aitortu direnak), ez dira apirila baino lehen fakturatuko.

Kontseilu Arautzailearen osoko bilkurak urtero finkatuko eta argitaratuko du "ziurtapenaren oinarriaren" balioa, eta betiere aplikazio-urtearen otsailaren 1a baino lehen. Ez bada argitaratu, aurreko kanpainako balioak aplikatuko dira.

Gaztandegiek ezohiko kontrol-jarduerak egiteko eskatzen badute, haien neurri zuzentzaileen barruan (ikuskaritzak edo saiakuntzak), operadoreak ordaindu beharko du kontrol horien kostua. Era berean, ezohiko kontrol-jarduera horiek Kontseilu Arautzailearen ekimenez egiten direnean ere, ziurtapena gaizki erabiltzen ari den zantzuak daudelako, gaztandegiari fakturatu ahal izango zaizkio.

Kontseilu Arautzailearen osoko bilkurak urtero argitaratuko du ezohiko ikuskaritzen kostua, eta bat etorriko da ikuskaritza-zerbitzuek Kontseilu Arautzaileari fakturatzeko dioten kostuarekin. Saiakuntzei dagokienez, laborategiek berek ezarritako dituzte beren tarifak.

3. Beste batzuk:

Beste zerbitzu batzuen edo elementuen horniduren kasuan, Kontseilu Arautzaileak ez die inskribatutakoei kobratuko horiek eskuratzeak Kontseiluari eragin dion kostua baino gehiago.

IDIAZABAL GAZTA JIKAB